

BERMEOKO PORTUKO ANTOLAMENDU-PLAN BEREZIAREN HIRUGARREN ALDAKETA

H. DOKUMENTUA. IRAUNKORTASUN EKONOMIKOAREN MEMORIA. 2021

H.1. URBANIZAZIO-JARDUKETEN IRAUNKORTASUN EKONOMIKOAREN AZTERKETAREN ARAU-JATORRIA

Euskal Autonomia Erkidegoko hirigintza-araudi propiotik abiatuta, 31. artikuluan, "Urbanizazio-jarduketan eragina. Hirigintza-antolamenduko planen dokumentazioa", Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea garatzeko Premiazko neurriari buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretua, Bermeoko portuaren 3. aldaketaren plan berezi honen dokumentazioan "Iraunkortasun ekonomikoaren memoria" izeneko dokumentua sartu behar da.

Aipatutako dokumentuaren irismena zein izan daitekeen jakiteko, aipatutako 31. artikuluko f) atalaren erreferentzia zehatza adierazten dugu:

f) Iraunkortasun ekonomikoari buruzko memoria; bertan, bereziki haztatuko da hirigintza-jarduketak zer eragin izango duen beharrezkoak diren azpiegiturak ezarri eta mantentzeak edo ondoriozko zerbitzuak jarri eta eman izanak ogasun publikoetan, bai eta jarduketa horrek zer eragin izango duen urbanizatu beharreko lurzorua kendu ondoren produkzio-erabileretara bideratutako lurzoruaren azalera eta egokitzapenean ere.

Estatuko legerian horri buruz ezarritakoa kontuan hartzen badugu, 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak baldintza berberak ezartzen ditu iraunkortasun ekonomikoari buruzko memoria edo txostena egiteko, eta ezartzen du eraldaketa-jarduerak jasotzen dituzten planetako dokumentazioaren parte izan behar duela.

Horretarako, 22.4 artikuluan, "Hiri-garapenaren iraunkortasunaren ebakuazioa eta jarraipena eta hiri-ingurune jarduketan bideragarritasun tekniko eta ekonomikoaren bermea" izenekoan, honako hau ezartzen da:

4. Hirigintza-eraldaketako jarduketak antolatzeko tresnen dokumentazioak iraunkortasun ekonomikoari buruzko txosten edo memoria bat izan beharko du, eta bertan haztatuko da, bereziki, jarduketak zer eragin izango duen beharrezko azpiegiturak ezartzeak eta mantentzeak edo ondoriozko zerbitzuak abian jarri eta eman izanak ogasun publikoetan, bai eta ekoizpen-erabileretarako lurzoruaren nahikotasuna eta egokitasuna ere.

H.2. BERMEOKO PORTUKO HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIAREN EZAUGARRI ESPEZIFIKOAK

Hirigintza-espeditate honetan, Bermeoko portuko jabari publikoaren antolamendua Euskal Autonomia Erkidegoko Portuei eta Itsas Garraioari buruzko ekainaren 28ko 2/2018 Legearen xedapen bidez ezartzen da. Lege hori Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legean ezarritako azpiegitura-plan berezian datza.

Ondorioz, eremu espazial osoko plangintza bat dugu, jabari publikokoa, eta eremu horretan titulartasun publikoko erabilerak eta jarduerak bakarrik koka daitezke, portu-jardueraren garapena ahalbidetzeko, portuko jabari publikoko lurzoruen gaineko erabileren eta jarduera pribatuen zeharkako kudeaketa baimentzeari kalterik egin gabe, baimenen eta emakiden araubidean.

Hori dela-eta, plan berezi honen hirigintza-jarduketak eremu publikoetako eta eremu pribatuetako erabilerak eta jarduerak kokatzen diren gainerako hirigintza-jardueretatik bereizten duten ezaugarriak ditu; izan ere, haren lur-azalera guztiak titulartasun publikoko portu-sistema orokor bat osatzen du, eta haren azpiero eremu edo lursail berezituak titulartasun publikoko eraikuntzak, eraikinak eta instalazioak bakarrik eduki ditzakete, eta, hala badagokio, zuzkidura-eraikigarritasun fisikoa izan dezakete, hirigintza-eraikigarritasun propiorik sortu gabe.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuko Administrazioak sustatzen du plan berezi honen gauzatzea kudeatzea, zerbitzu publikoak eta azpiegiturak kontserbatzea eta mantentzea, bai eta portu-jarduerari dagozkien zerbitzuak ematea ere.

H.3. BERMEOKO ETA MUNDAKAKO UDAL-ADMINISTRATIOEKIKO ERAGIN EKONOMIKOARI BURUZKO KONTSIDERAZIOAK

Bermeoko portuko plan bereziaren kudeaketak eta egikaritzeak eragindako administrazioen barruan, Bermeoko eta Mundakako udalak daude, Bermeoko portuko lur-sistema orokorraren frakzioak udal-mugarteetan jasota baitaude.

Bermeoko portuko plan bereziaren ondoriozko azpiegiturak eta zerbitzuak gauzatzeko, mantentzeko eta kontserbatzeko kostuen zuzeneko ikuspuntutik, ez da inolako eraginik izango, portuko jabari publikoko azalera guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko Portuko Administrazioaren titulartasuneko sistema orokor gisa kalifikatuta baitaude, eta administrazio horren mende baitaude zuzenean.

Bermeoko portuko plan bereziaren 3. aldaketa honetan ezarritako zehaztapenak gauzatzearen ondorioz udal-administrazioak izan ditzakeen diru-sarrerari dagokienez, zuzeneko eragin

gisa dagokien udalei, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren (EIOZ) ondoriozko diru-sarrerak, hirigintza-lizentziengatiko tasak eta tokiko jarduerengatiko tasak soilik egokituko zaizkie.

Era berean, ez da aldaketa garrantzitsurik aurreikusten udalak hartzeko beste diru-sarrera posible batzuei dagokienez, hala nola ibilgailuen gaineko zergei, saneamendu-zerbitzuak emateagatiko tasei, zabor-bilketari eta abarri dagokienez, Bermeoko portuko portu-jardueren euskarrien sendotze-maila kontuan hartuta; baina aldaketa honetan ezarritakoak ez du ekarriko egungo egoera nabarmen aldatzea, kontuan izanik portuko jardueren euskarri fisikoak handitzeko aldi baterako egutegi bat ezartzeko aukera gutxi dagoela.

H.4. BERMEOKO PORTUKO PLAN BEREZIKO ZEHAZTAPENEK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO PORTU ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN DUTEN ERAGIN EKONOMIKOA

Bermeoko portuko plan bereziaren 3. aldaketaren bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioaren azterlanean adierazi den bezala, honako azpiegitura eta eraikin hauek egitea proposatzen da, epeak eta zenbatekoak adierazita:

1. ETAPA (5 urte)	9.197.139,41€
<ul style="list-style-type: none"> 1. Iparraldeko kaiaren eraikina eraikitzea, SZNR_B01 azpiekeremuak, nautika eta jolas-erabileren azpiekeremua, eta SZPS_B01 arrantza-erabileren azpiekeremua. Kapitaintzaren eraikina barne 	
2. ETAPA (5 urte)	17.825.176,62€
<ul style="list-style-type: none"> 2. Matxikortako kaiko zerbitzu-eraikina eraikitzea. SZIC_B02 azpiekeremua 3. Frantxua eraikina eraikitzea. SZUC_B01 azpiekeremua 	
3. ETAPA (5 urte)	10.122.474,10€
<ul style="list-style-type: none"> 4. Lonja birmoldatzeko fasea 5. Ekipamendu publikoko erabilerarako eraikina eraikitzea SZUC_B02 azpiekeremuan 6. Kofradiako zubia eraikitzea 	

Adierazitako obrak Portuko Administrazioak gauzatuko ditu, zehazki, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailak, Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzaren bitartez, eta, ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publiko Orokorraren jarduketara bat da, aurrekontu orokorretan ezarri beharreko partidetan oinarritzen dena.

Era berean, Portuko Administrazioak Bermeoko portuan ematen dituen azpiegiturak eta zerbitzuak mantentzeko kostuak Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan Portuko Administrazioari zuzendutako aurrekontu-partiden bidez finantzatuko dira, eta, zehazki, ondorio horietarako.

Bestalde, Bermeoko portuko azpieremuetan kokatu beharreko baimen eta emakidei dagozkien diru-sarrerak, bai eta portu-jardueraren beste zerbitzu batzuk ematek eratorritakoak ere, Bermeoko portua kontserbatzera eta mantentzera bideratuko dira, Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorretan ezarritakoaren arabera, Portuko Administrazioari dagozkionak.

Aurrekoaren ondorioz, plan berezi hau gauzatzearen iraunkortasun ekonomikoa Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren etorkizuneko edukiak ezartzen du, portuko agintaritzak administratutako arrantza- eta merkataritza-portuen zerbitzua mantentzeari erantzuten dioten heinean.

H.5. PRODUKZIO-ERABILERETARA BIDERATUTAKO AZALEREI ERAGITEA

Bermeoko portuaren plan bereziaren 3. aldaketa honek ez du inolako eraginik izango ekoizpen-erabileretara bideratutako azalerean, kontuan hartuta eutsi egiten zaiela lur-azalerari eta portu-jarduerak garatzeko eta mantentzeko ahalmenari; azken horiek ondasunak eta zerbitzuak ekoizteko jarduera mota gisa ulertzen dira.

Bilbo, 2021ko Maiatza
ARKITEKTUAK





Izpta.: Anton Agirregoitia Aretxabaleta - Iñaki Peña Gallano - Ibon Pascual Arechavaleta